

Donostiako Musika Hamabostaldia

2018 Urteko Plana

Donostiako Musika Hamabostaldia S.A.-k helburu programatiko eta artistiko batzuk ezarri ditu 2018ko ekitaldirako, aurreko 78 ediziotako ibilbide oparoaren bidez dagoeneko sendotuta dagoen jaialdi formatu bati aberastasuna eta segida emateko asmoz.

Hona hemen jarduera-esparruetako bakoitzerako proposatutako jarduera-programaren laburpena:

Arte-eskaintza

- Opera antzeztua (Hamabostaldiak 2016an bertan behera utzitako jarduera) mantentzea eta bertako produkzioaren aldeko apustuari eustea.
- Abesbatzen kontzertuak programatzeko politikarekin jarraitzea. Batetik, tokiko abesbatzek lehen mailako orkestrekin lan egin ahal izan dezaten, Hamabostaldiaren barruan ez bada ez bailukete izango horretarako aukerarik. Eta, bestetik, abesbatzek bere presentzia nabarmenagoa izan dezaten, Musika Hamabostaldiaren nortasun-zeinu nagusietako bat diren heinean.
- Ganbera-musika. Hamabostaldiren programazioan ia desagertua zen ganbera-musika. Aurreko edizioan bezala, aurreko ere ganbera-musikako zikloa berreskuratu dugu, Hamabostaldiaren programazioan sendo finkatzeko asmoarekin.

Bertako artisten erakusleiho

Bertako arte-ehunaren balioa nabarmentzea. Hamabostaldiaren eginkizunetako bat gure inguruko arte-ehunaren garrantzia azpimarratzea da. Politika hori bi modutara eraman daiteke aurrera:

1. Batetik, tokiko abesbatzak eta nazioarteko orkestrak kontzertuetan batuz.
2. Eta, bestetik, arreta berezia eskainiz euskal artistei, bai dagoeneko ibilbide bat eginda daukatenei, bai sortu berriei. Azken horiei dagokionez, bereziki interesgarria iruditzen zaigu sonako artistekin plataforma bat —Hamabostaldia— eta/edo kontzertuak partekatzeko aukera izatea, esperientzia irabaz dezaten eta harreman horren ondorioz etorkizunean lankidetzaproiektuak sor daitezzen.

Gazteak eta Hamabostaldia

2018ko edizioan zehar, hainbat ekintza eramango dira aurrera, helburu nagusi batekin: musika klasikoa eta dantza gazteengana gerturatzea, haiek partaide aktibo (interprete gisa) zein partaide pasibo (ikus-entzule gisa) bihurtuz.

- Artista gazteen presentzia zabala edukitzea. Partaidetza aktiboari dagokionez, gazteen presentzia, interprete gisa, hainbat kontzertutan nabarmenduko da: bai inaugurazio ekitaldian, bai gazte interpreteen zikloan, bai Musikeler sekzioan. Ildo horretan, Hamabostaldiaren aurtengo edizioan hamabi bat kontzertu eskaintzea aurreikusten da.
- Hurrei zuzendutako eskaintza zabaltzea. Gazteenei zuzendutako eskaintza zabaldu egingo da. Haurrentzako eguna, ipuin-kontaktetako saioak eta lantegiak Donostiatik kanpo antolatuko diren eskaintza berriei zabalduko dira.
- Zuzeneko musika klasikoa ezagutzeko eta gozatzeko aukerak azpimarratzea.
- Aurten ere Kursaalera eta Victoria Eugeniako kontzertu guztietarako sarrerak eskainiko dira, 30 euroko prezio murriztuan, 30 urtetik beherakoentzat, "Gazte Ordua" programaren bidez.
- Eta jarraipena emango zaio aitzindari izan den programa bati: SOLasean. Musika klasikoko kontzertu bat lehen aldiz gozatzeko gonbidapen bat da ekimena. Ekimen horren bidez edozein diziplina artistikoren kultur kontsumoa bultzatu nahi da, baina, bereziki, musika klasikoarena. SOLasean ez da kontzertu baterako gonbidapen hutsa, prestakuntza-lan bat dago aurretik

(entzungai jarriko diren obren entzunaldia, eta haiei buruzko eta kontzertu bat gozatzeko moduari buruzko hitzaldi praktikoko labur bat) eta ondotik (gonbidatuek bizitako esperientziari buruzko informazioa jasoko du Hamabostaldiak).

Hamabostaldi Ibiltaria

Bere horretan eutsiko zaio Hamabostaldiaren bertsio Ibiltariari. Arazo ekonomikoak gorabehera, Hamabostaldiak bere bertsiorik ibiltarienari eutsiko dio 2018an, eta Donostiatik kanpora eramango du bere jardueraren parte bat, dagoeneko ohikoak diren plazen presentzia sendotuz eta beste plaza berri batzuk bere programazioan txertatuz.

Ekimen horren helburu estrategikoa Senperen (Lapurdi) egiten den zikloa sendotzea izango da, mugaz bestaldeko jendartea Hamabostaldiko kontzertuetara erakartzeko helburuarekin.

Arabako hainbat udalerritan kontzertuak eskaintzen jarraituko da, Arabako Foru Aldundiaren eskutik.

Prestakuntza-ekimena

Prestakuntza-eskaintza zabaltzea. Hamabostaldiak zabaltasun handiagoa emango dio prestakuntza alorrari hurrengo edizioan. Dagoeneko indarrean dauden proposamenak mantentzeaz gainera, lan-ildo berriak bilatuko ditu.

Musika-jaialdian zehar, Hamabostaldira gonbidatutako bakarlariek eta zuzendariek zenbait eskola magistral eskainiko dituzte, Musikeneko ikasleei zuzenduak gehienbat.

Bestalde, Ahozko Teknika Ikastaroaren beste edizio bat egingo da, Gipuzkoako abesbatza-kide guztiei zabaldua. Halaber, Organo Erromantikoaren Nazioarteko Ikastaroaren beste edizio bat egingo da, hogeita hamabosgarrena hain zuzen.

Musika konprometitua

Izenburu horren azpian, Musika Hamabostaldiak Giza Erantzukizun Korporatiboaren alorrean 2018ko ediziorako aurreikusitako jarduerak biltzen dira.

- GKE edo irabazi-asmorik gabeko Elkarte batekiko lotura mantentzea. Antzinako Musika Zikloak dohaintzak egiteko bidea eskainiko du. Bildutako dirua GKE batera edo irabazi-asmorik gabeko Gizarte Elkarte batera bideratuko da bere osoan.
- Hamabostaldi Solidarioa programari eustea. Hamabost Solidarioa programa —3 edo 4 kontzertu— bere horretan mantenduko da hirugarren adinekoen egoitzetan edo ospitale-guneetan, osasun arrazoiak direla-eta ohiko kontzertu-aretoetara joan ezin diren pertsonen gozamen-uneak eskaintzeko helburuarekin.
- Langabetuentzako tarifa berezia bere horretan mantentzea. Programako kontzertu nagusietara prezio abantailatsuetan joateko aukera eskainiko die Hamabostaldiak langabetuei. Musikaaldiak sarrera batzuk gordeko ditu langabetuentzat, hiru euroko prezioan. Sarrerak leihatilan bertan eskuratu ahalko dira, kontzertuak hasi aurretik.
- Hamabostaldi Berdea programa nabarmentzea. Programa hau aitzindaria izan da Europan. Musika-jaialdi honetako jardueretan ingurumen-politika ahalik eta iraunkorrena erabiltzen laguntzen du proiektu horrek, bai eta entzuleei zein parte-hartzaileei planeta zaintzeko beharraz kontzientzia harrarazten ere.